

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 3 saria



Bizi-itxaropena geroz eta handiagoa den honetan, ez dugu bitartekorik Alzheimerrari aurre egiteko, eta XXI. mendeko epidemia bilakatu zaigu gaixotasun suntsitzaile eta krudel hori. Ohartu naiz geroz eta jende gehiagok bizi duela Alzheimerra gertutik, eta horrek eraman nau, hain zuzen ere, narrazio hau idaztera. Ama Alzheimerrak jota daukan alaba da kontakizunaren narratzailea; endekapen-prozesu gogor baten kontaketa egiten digu, gaitzaren lehen zantzuak agertzen hasten direnetik, alaba ezagutzeko ere gauza ez den ama baten erretratua egiten digun arte.

Espero dut zuen gustukoa izatea!

AMAMINEZ

- Bai, esan?

- Ederra egin dut, Amaia!

- Zer gertatzen da?

- Errege-opila... kiskali egin zait!

- Lasai, ama...

- Labean sartu dut, etxeko-lanekin hasi naiz, eta seko ahaztu zait. Ez naiz gehiago labeaz akordatu, bat-batean erre usaina sumatu dudana arte. Orduan bai, orduan korrika joan naiz, baina alferrik... Zer egin behar dugu orain? Zer esan behar diegu umeei?

- Ez kezkatu, ama: ordu bietan ixten dute Barrenkaleko gozotegia, eta izango dute oraindik errege-opilen bat guretzat. Ez da zurea bezain gozoa izango, baina balioko digu gaurkoa egiteko...

- Zoaz ziztu bizian, agortu baino lehen!

Errege-opila. Zure errege-opila. Mahaiaren gainean ikusten genuen aldiro, lehendabiziko aldiz jan genuenean bezalako zirrara eragiten zigun. Berezia zen. Agian, azafrai-dosi juxtua botatzen zeniolako; edo labean eman behar zituen minutu eta segundo guztiak kontrolatzen zenituelako, gero puntu-puntu jateko; edo, besterik gabe, amonaren errege-opila beste inorena baino hobe izaten delako eta ahoratzen genuen zati bakoitzari zapore berezi bat hartzen geniolako.

Urtarrilaren sei hartako bazkalondoan, zapore berezi bezain gozo haren minez gelditu nintzen. Denok esan genion "Gozoa dago!" Barrenkalen erositako errege-opil komertzialari, eta zuri, goizean egin zenuen korrika-saio alferrikakoari garrantzia kendu nahian, baina zure begi

zimurtuetan irakurri nuen tristura eta mina barru-barruraino sartu zitzaizkidan. Gogoan daukat nola begiratu genion elkarri ahizpak eta biok. Begirada-truke xume bat nahikoa izan zen gauza bera pentsatzen ari ginela ulertzeko, ama zahartzen ari zitzaigula eta laster bere lekukoa hartu beharko genuela onartzeko.

Gaur badakit mugarri bat izan zela niretzat errege-egun hura, alerta-egoeraren keinukaria kokatu baitzen nire garunaren ertz batean, ipurtargi bat izango balitz bezala.

- Bai, esan?

- Ama!

- Zer gertatzen da, Amaia?

- Ez al didazu zerbait esan behar?

- Nik?

- Haurtzaindegia, ama! Ez al zeneukan enkargu bat niretzat?

- Nik?

- Bai, ama, zuk!

- Ez dut uste... Bederatzietan eraman dut Irati haurtzaindegira, eta bere zaintzailearekin utzi dut. Gero, autobusa hartu eta etxera etorri naiz.

- Baina, baina... ergeltzen hasi zara? 12:00etan ixten zuten gaur haurtzaindegia, gelak margotu behar zituztela-eta!

- Ene, bada! Ez al nizun esan?

- Ba ez! Ez zenidan esan! Hilabeteak eman ditut nire bizitzako proiektua prestatzen. Gaur aurkeztu behar nuen, eta bilera hasi eta 10 minutura deitu didate, umea jasotzera inor ez garela azaldu esanaz. Korrika eta presaka atera behar izan dut, enpresako handi-mandi guztien begirada errukiorrarengandik iheska! Eta zergatik, eta zuri ahaztu egin zaizulako! Burua galtzen ari den ama bat daukadalako!

- Ene, bada! Ene, bada! Zer gertatu zait?

- Zer gertatu zaizun? Nire proiektua pikutara bidali duzula!

- Baina Aitorrek ezin zuen umea jaso?

- Aitor Alemanian dago, ama! Horregatik lo egin duzu gure etxean, aste honetan: goizean Irati haurtzaindegira eramateko! Ala hori ere ez duzu gogoratzen?!

Ez diot sekula nire buruari barkatuko nola hitz egin nizun. Nire onetik atera ninduzun, eta oihu egin nizun, frenoa batere zapaldu gabe, gupidarik gabe. Eta aintzat hartu gabe niri laguntzera etorri zinela egunero, zintzo-zintzo, niretzat horren gogorra izango zen astea arindu nahian, zuk hori egiteko obligaziorik ez bazeneukan ere.

Isil-isilik gelditu zinen, zure burua defendatzeko asmorik txikienaren aztarrenik gabe. Bat-batean, telefonoaren bestaldean imajinatu zintudan, zure begirada hauskorrekin, nire haserrearen zergatia ulertzeko gai izango ez bazina bezala. Eta arnasa eten zitzaidan, zure isiltasunean barrena igeri eginez ohartu bainintzen gaixo zeundela eta ez zinela gehiago izango nire betiko ama: umea nintzela, nire beldurrak uxatzeko ipuin zoragarriak kontatzen

zizkidan ama, edo ohean gaixorik nengoenean, termometroa besapean jarri eta kiskaltzen neukan kopetan musu freskagarri bat ematen zidan ama. Itolarria sentitu nuen. Nire bizitzan lehen aldiz, umezurtz sentitu nintzen. Amaminez.

- Bai, esan?

- Etor zaitez, arren!

- Zer gertatzen da, ama? Zergatik ari zara negarrez?

- Triste nago, oso triste nago!

- Baina zergatik zaude triste?

- Gizon gaiztoak etorriko dira, eta etxea kenduko digute, eta dirua ere bai, eta ezer gabe utziko gaituzte!

- Ez, ama. Zure irudipenak dira. Lasaitu egin behar duzu.

- Beldurrez nago!

- Ez izan beldurrik, ama; oraintxe noa zuregana...

Sekulako esfortzua egin behar izan zuten nire ahots-kordek azken esaldi hori kanporatu ahal izateko. Indartsu eta beldurrik gabe nengoela helarazi nahi izan nitzun, zuk nirekin egiten zenuen bezala, udako iluntze haietan Urbiatik behera gentozela tximistak harrapatzen gintuen aldiro; gerora, handiagoa nintzela, behin baino gehiagotan aitortu zenidan zenbaterainoko beldurra ematen zizun begiak itxiarazten zizkigun tximista-argi bat-bateko hark. Bada, niri ere, zuri orduan bezala, urdailean gora beldur ikaragarri bat igo zitzaidan eztarriraino, nirekin zeundela eta beldurrik ez izateko esaten ari nintzaizun bitartean. Une hartan bertan konturatu nintzen rola elkartrukatu genituela, eta zure babesleku bilakatu nintzela. Aurrerantzean, zure babesaren minez bizi beharko nuela.

- Diagnostikozehatza daukagu: zuen amak Alzheimerra dauka. Dakizuen bezala, neuroendekapenezko gaixotasun bat da Alzheimerra, demenzia eragiten duena.

- Zein fasetan dago?

- Demenzia-fasean sartzen ari da.

- Horrek zer esan nahi du? Ez dela jada gauza izango bizimodu autonomo bat izateko?

- Bai, hori esan nahi du. Hemendik aurrera, mendekotasuna pairatuko du, eta ez da gai izango bere kabuz jarduteko.

Inoizko hitzik beldurgarrienak eta hotzenak iruditu zitzaizkidan. Belarrien ertzean sumatu nituen, bata bestearen atzean, eta, banan-banan, nire gorputz minberan zehar barreiatuz joan ziren, gorputz-adar urruneneko azken odol-tanta ere izoztu zitzaidala sentitu nuen arte. Ezin izan nuen malko bakar bat ere isuri, handiegia zelako hitz madarikatu haiek eragin zidaten mina. Azken hilabeteetan, zure endekatze gaiztoaren lekuko izaten ari nintzen arren, esperantza-printza txiki bati helduta jarraitu nuen; horregatik, are mingarriagoak iruditu zitzaizkidan hitz irmo haiek, errealitate gordina ez onartzeko aitzakiarik gabe utzi baininduten.

Ez zinen gehiago niri astea arintzera etorriko, Iratiarekin bakarrik gelditzen nintzen aste luzeetan; ez zinen gehiago nire aholkulari partikularra izango, laneko gorabehera baten aurrean zirt edo zart egin beharrean nengoenean; ez zenidan gehiago ipuin zoragarriarik kontatuko, nire beldurrak uxatzeko premian nengoenean; ez zenidan termometroa besapean ipini eta musu freskagarriarik emango gaixoaldietan... Hustuta sentitu nintzen, nire izatearen puska

garrantzitsuena galdu izan banu bezala, eta, aldi berean, haserre, munduarekin, bizitzarekin, neure buruarekin, zurekin... harik eta aurrerantzean izango zinen bezala onartu zintudan arte.

- Umea goseak dago!

- A bai? jaten eman beharko diozu...

- Zopa bero-beroa emango dizut, maitea!

- Goseak dago, bai! Gero siesta egitera eramango duzu?

- Ez, gaur ikastolara joan behar du!

- Soinekoa jantzi eta orraztu egin beharko duzu orduan...

- Bai, bi txirikorda egin behar dizkiot.

- Zeinen polit joango den ikastolara...

- Eta zu? Nor zara? Andereñoa?

- Ez, ama, ni Amaia naiz, zure alaba. Niri ere txirikorda polit askoak egiten zenizkidan txikia nintzenean...

- A bai?

Bai, ama. Izugarri gustatzen zitzaizkidan ikastolara joateko egiten zenizkidan txirikordak. Zure errege-opila bezain bereziak ziren. Perfektuak ziren. Terrazako aulki gorrian esertzeko esaten zenidan beti, sukaldean genituen aulkiak baino altuxeagoa zelako eta zu hobeto moldatzen zinelako. Nik ere ilea orrazten nion panpinari, goxo-goxo hitz egiten nion bitartean, eta zu ere elkarriketan sartzen zinen, nire ametsen munduari inolako oztoporik jarri gabe.

Bada, nik ere zure ametsen munduan bizi zaitezen utzi dizut, azkenean: egunero-egunero, terrazako aulki gorrian esertzen zaitut, bi eskuetan nire txikitako panpina duzula, eta ilea orrazten dizut, panpinari txirikordak egiten saiatzen zaren bitartean, panpinari goxo-goxo hitz egiten diozun bitartean. Zure ametsen munduan murgiltzen uzten dizut, inolako oztoporik jarri gabe, neuk ere gogoko baitut zure eta nire ametsen mundura jauzi egin eta minik ez sentitzea. Atsegin dut begiak itxi eta eskuetan daukadan orrazia harat honat ibiltzea, zure ile zuria alde batetik bestera eramanez, oroitzapen gozo batetik bestera jauzi eginez, jakin badakidan arren errealitate gordinera itzultzen naizenean ipuin zoragarriak kontatzen zizkidan amaren mina izaten jarraituko dudala eta ikasi egin beharko dudala amaminez bizitzen.